

Hizkuntza, kultura transmisioa eta alderdi soziolinguistikoaren aplikazioa euskaltegiko taldeetan

Alaitz Etxebarria

*Hizkuntza irakastea ez da ikasleei ezagutza linguistiko soil batzuk dau-
den-daudenean eskaintzea. Alderdi soziolinguistikoak berebiziko pisua
du egiteko horretan guztian. Makina bat aldiz ekarri da mahai gainera
ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka. Hizkuntza, bestalde,
gizarteen kulturaren parte garrantzizko bat da. Funtsezkoena askoren
ustez, zeren eta hizkuntza, besteak beste, bera osagai deneko kultura-
ren garraio-tresnarik behinena ere baita.*

*Euskara irakastea euskal kulturaz janztea ere bada. Artikugileak euska-
ra-irakasle dihardu helduen euskalduntze-alfabetatzean AEKn, eta,
aipatutako alderdi horiek aintzat harturik, euskaltegietan duten isla
aztertzen du. José María Sanchez Carrión Txepetxen “Un futuro para
nuestro pasado” liburuari jarraikiz Motibazioa, ezagutza eta erabilera
hirukotea ere aztergai du eta horien guztien gaineko gogoeta eskain-
tzera datorkigu.*

1. Aurkezpena: gaiaren aukeraketa
2. Egoeraren analisia
3. Kurrikulua: dioena eta nola aplikatzen dugun
4. Hobetze bidean

1. Aurkezpena: gaiaren aukeraketa

Agian, batek baino gehiagok pentsatuko du gaia topikoa dela. Akaso, batek baino gehiagok uste izango du gai honi buruz hainbat eta hainbat idatzi dela eta, gainera, antzeko gauzak esaten direla beti. Baina beharba-
da, norbaiti, euskaltegietan egunero dihardugun irakasleon ikuspuntuak jakin-mina sorraraziko dio. Eta horixe da, hain zuzen ere, lan honen hel-
buru garrantzitsuenetariko bat: hausnarketa eta iritzi trukaketa eragitea.

Euskaltegietan hainbat urtetan lanean ari garenok makina bat aldiz pentsatu dugu zerbait oker egiten ari garela edota gure eguneroko taldeetan zerbaitetan ez dugula asmatzen.

Ikasleek euskara ikasteko erabiltzen duten ordu-kopuruari begiratzeko badiogu eta lortzen dituzten emaitzak alderatuz gero, esan dezakegu ez asmatze hori dela euskaltegietako irakaslearen eguneroko sentipena.

Zer pentsa badugu, ordu-kopuruari eta emaitzei ez ezik, ikaslearen motibazioari erreparatuta ere. Nola ote daiteke, guztiz konbentzitututa euskaltegira hurbildu den ikasleak, bizpahiru urte pasatutakoan euskaldundu gabe eta adorea zeharo galduta euskaltegia bertan behera uztea?

Gaiari hainbat arlotatik hel dakiok. José María Sánchez Carrión Txepetxek, *Un futuro para nuestro pasado* liburuan hizkuntza bat ikasteko oinarritzko hiru faktore dagoela esan zuen:

- Motibazioa
- Ezagutza
- Erabilera

Hirurak garrantzitsuak, hirurak elkarren osagarriak, hirurak ezinbestekoak.

Baina, izaten al ditugu irakasleok kontuan hiru faktore horiek geure eguneroko jardunean? Eta horrela izanik ere, garrantzi bera ematen al diegu? Nola lantzen ditugu klaseetan? Badugu irizpide komunak faktore horiek ebaluatzeko? Edo, askotan ezagutza dugu helburu bakarra?

Ziur asko, galdera horiei erantzuna emateko, “zenbat irakasle, hainbat aburu” esan genezake. Baina, orokorrean, zerbait konpontzeko beharra dugula sentitzen dugu. Horrela, bada, mahai inguruan eserita egoten garenean geure buruari egiten dizkiogun galdera horien erantzunak komunean jarri eta irizpide bateratuak zehaztu beharko genituzkeelakoan nago.

“Kultura transmisioa euskaltegiko taldeetan” da txosten honetan aztertu nahi dugun beste arlo bat. Gure ikasleak zeharo desberdinak dira elkarrekiko. Gune geografikoak duen eraginaz ez gara hemen luzatuko, baina gune geografiko hori bera izanda ere, beste ikaskideekin alderatuta, ikasle bakoitzak duen ezagutza kulturala guztiz desberdina dela uste duten horietakoa naiz.

Zer garrantzi ematen diegu gure klaseetan ezagutza kulturalari? Gai izaten gara, hizkuntzaren ezagutza, hizkuntza bera irakasten dugunean, gure herriaren kultura eguneroko programazioetan txertatzeko? Aintzat hartzen al dugu ikaslearen tipologia kultura horren transmisioa bermatzeko? Moldatzen ditugu atazak, edo datozen moduan klaseratzen ditugu? Ez dira falta hemen ere galderak.

Alderdi soziolinguistikoari ere egin nahiko nioke aipu. Hainbat adituk, baita Eusko Jaurlaritzak berak ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztutako hurrengo urteetako egitasmoan, hiztunen tipologia aldatu egin dela diote eta, are gehiago, aldatzen ari dela.

Euskaldun berrien kopurua asko hazi da. Izan ere, euskaldun berriak euskaldun zaharrak baino gehiago dira gazteenen artean. Halaber, bi multzo horiek oso desberdinak dira kualitatiboki, bai euskaraz bai gaztelaniaz hitz egiteko duten trebetasunari dagokionez; baita familiako, gizarteko eta laneko harreman-sareetan duten euskaldunen dentsitateari dagokionez ere. Eta, azken batean, horren arabera izaten da hitz egiteko aukeraturako hizkuntza.

2001. urteko Soziolinguistikako inkestari begiratu eta erabilerari erreparatu, erdara da gehien erabiltzen den hizkuntza. Baina, euskararen erabilerak gora egin du EAEn, batez ere euskaraz hitz egiten hasi diren gazte euskaldun berriei esker. Baina, euskaldun berri horiek erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz. Gainera, familia eta lagunarte erdaldunak izaten dituzte. Beraz, harremanetan ez dute behar besteko euskaldunik euskaraz hitz egiteko.

Gauzak horrela, eguneroko jardunera etorrira, eskaintzen al diegu ikasleei erabilerari suspertuko dien eremurik?

Honekin lotuta, azken faktore bat aztertzen saiatuko naiz. Kike Amonarrizek hizkuntza kalitatea burujabetza linguistikoa dela esan zuen. Aurreko paragrafoan idatzitakoa, hots, elebidunen kopuruak izugarri gora egin duela, eta kalitatea uztartzen baditugu, irakasleonek beste kezka handi bat ageri zaigu: kalitatezko hiztunak sortzen ditugu?

Bada, norbaitek pentsatuko du: galderak bai, baina zeintzuk dira erantzunak? Ba al dago hori guztia argi ikusten duen norbait? Lan honetan helburua ez da erantzunak ematea, ezta inor konbentzitzen saiatzea ere. Hemen helburua, lehen aipatu dudana bezala, hausnarketa eta iritzi trukatzea eragitea da. Ekin diezaiozun gaiari, bada.

2. Egoeraren analisi

Atal honekin aurrera egin baino lehen, gauza bat argitu nahiko nuke: egoeraren analisi nire eguneroko eskarmentutik egingo dut. Entzun, trukatatu eta kontrastatu ditudan iritziak nik lan egin dudana euskaltegi berean lan egiten duten irakasleek dira. Beraz, lan honetan agertzen diren iritziak sareko euskaltegi batean –AEKn. hain zuzen ere– lan egiten dugun batzuenak dira.

Norbaitek pentsa lezake analisi hanka motz geratuko dela; ez du arrazoi faltarik izango, baina sareko beste euskaltegietako irakasleekin lantzen ditugun harreman urriek eragindakoa da, aurrera begira lan-ildoak markatzeko balio beharko lukeena. Bada, argi gera bedi, nire eta inguruko esperientziatik hitz egiten ari natzaizuela.

*Txepetxen hiru
faktoreak*

Txepetxek *Un futuro para nuestro pasado* liburuan hizkuntza bat ikasteko oinarrizko hiru faktore mugatu zituen. Ikus ditzagun euskaltegiko taldeetan.

Honela definitu zituen Sánchez Carriónnek:

- Motibazioa.–
Hizkuntza bat ikasteko ditugun arrazoi, gogo edo interesak.
- Ezagutza.–
Hizkuntzaren funtzionamendua ikasteko prozesua eta ahalmena.
- Erabilera.–
Edozein unetan, edozein arlo komunikatibotan, hizkuntzaren erabilera bera.

Azter ditzagun banan-banan:

Motibazioa

Motibazioa ezinbestekotzat jotzen dut edozein ikaslek bere ikas-prozesua buka dezan eta, oro har, pozik ere buka dezan.

Asko aldatu dira azken urteotan ikasleek euskaltegietara hurbiltzeko dituzten arrazoiak. Duela hamar bat urte, hainbat eta hainbat ikasle euskaraz hitz egiteko helburuarekin etortzen zitzaigun. Gaur egun, ordea, hizkuntza eskakizunak eta titulazio baten beharrak bultzatzen ditu eskoletara sarritan, gehiegitan esango nuke.

Helburu-aldaketa horren berri denok dugu. Baina, aldarazi ditu horrek zerbaitetan gure eskolak? Baiezkoan nago, baina, zoritxarrez, gure eta ikasleen kalterako. Helburu horri beste bat gehitu beharrean, horretara mugatzen gara errazegi. Helburua hori bada, pentsatzen dugu, lagun diezaiogun ikasleari hori lortzen; eskaini diezazkiogun bitartekoak; lor dezala beharrezko duen eskakizuna.

Ondo, helburua lortuko du. Baina, nola eragiten eta eragingo du jarrera horrek ezinbestekoak diren hurrengo bi faktoreetan? Beren kaltetan. Ikasle horien ezagutza, askotan horretara mugatuko delako, azterketa bat gainditzera, alegia. Eta erabilerari dagokionez, zer esanik ez, halatsu, ikasleak ez baitu inolako beharrik sentituko ikasitako beste hizkuntza horretan komunikatzeko.

Gordina badirudi ere, horrela delako uste sendoa dut. Eta hor ikusten dut lehenengo akats larria: tituludunak lortuko ditugu, baina ez hiztunak. Eta horretan du, hain zuzen ere, hizkuntza baten biziraupenak gakoa: ezagutzan eta, batez ere, erabileran.

Badakit gure irakasle-senari zer-nolako lana ematen dion aurreko paragrafoan jarritakoa onartzeak. Ados, pentsatzen dugu. Helburu komunikatiboak lantzen ditugu, hortxe dugu kurrikulua ere, erabilerari ematen diogu garrantzia gure eskoletan. Baina, zenbatekoa? Eta, nolakoa? Zer egiten dugu titulu bat lortzeko helburuarekin hurbildu zaigun ikasle baten bestelako motibazioak lantzeko?

Hainbat urtetako lan-jardunak ikuspuntu-aldaketa eragiten du sarritan. Hasierako ilusioak eta gogoak galdu ez arren, emaitzen azterketak zerbaiten hutsunea erakusten digu sarri. Asko hitz egiten da ikasleen motibazioari buruz, baina horri bezain garrantzitsua dela deritzot irakasleen

motibazioari. Eta horren gainean ez da, ez hainbeste, ez hainbestetan hitz egiten. Horretaz bada, faktore hori ere hartu nahiko nuke kontuan.

Nola eragingo dugu ikaslearen motibazioetan, gurea lantzen ez badugu? Zeintzuk dira euskaltegietan urteetan lanean ari garen irakasleen motibazioak? Zeintzuk helburuak? Hausnartzen al dugu inoiz horren inguruan? Galdetzen al diogu noiz edo noiz geure buruari ea hainbeste urte ondoren motibatuta sentitzen ote garen?

Horren falta nabaria antzematen dut euskaltegietan. Ikasturtez ikasturte helburu, ataza, ariketa, kantu, joko... berberak errepikatzen ote ditugun susmoa dut. Pentsatu gabe, aldatu gabe, ziur egon gabe...

Bai, batek baino gehiagok esango dit materialgintzan asko aurreratu dugula. Konforme. Baina, gure eskolak emateko eran zerbait aurreratu dugu? Norbaitek ebaluatzen ditu? Norberak bai? Ez da nire esperientzia. Batzuetan bakarregi sumatzen ditut irakasleak. Ez da besteen akatsa. Gehienetan norberak hautatuko zerbait dela uste dut, eta moduren batean konpontzekoa.

Ezagutza

Honela definitu zuen Txepetxek ezagutza: hizkuntzaren funtzio-namendua ikasteko prozesua eta ahalmena.

Baina, euskara ezin da edozein modutan irakatsi, edo, behintzat, ez genuke horrela egin beharko; horrela eginez gero, askotan porrota baino jasoko ez dugulako.

Oso gustuko dut Joxerra Garziak proposatutako bidea:

...etxeak eta kaleak eskaini behar bai baina eskaintzen ez dutena eskaini behar luke gure egoeran eskolak. Alegia: egoera komunikatiboak sortzeko sairolekua behar luke izan (...) Eskolaren helburu nagusia araua ikastea dela, baina araua diogunean, “arau komunikatiboa” esan nahi dugula eta ez “arau gramatikala”. Egokitasuna ardatz harturik, egoera komunikatibo estandarizatu eta normalak landu behar ditu eskolak, gainerako guztia (zuzentasuna eta ontasuna) horren zerbitzura jarririk.

Horra hor, euskaltegietan eskolak ematean buruan izan beharko genukeena, helburu nagusia izan beharko lukeena, inolako zalantzarik gabe. Esan daiteke bestela, baina ez argiago eta, nire iritzian, zuzenago.

Erabilera

Bernardo Atxagak esana da:

Horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egin.

Hortxe dago gakoa, hortxe dugu etorkizuna. Horretantxe trebatu behar ditugu ikasleak, horretarako motibatu eta lanari ekin.

“Hizkuntza Politika aurrera begira” Hizkuntza Politikarako Sailburu-ordetzaren 2005-2009 egitasmoan gogoetarako abiapuntutzat hartzen da erabilera. Hona hemen bertan aipatzen dena eta gure abiapuntu ere izan beharko lukeena:

...Besterik da ahalegin handi horrek euskararen erabilerari dagokionez espero zitezkeen eta eman beharko lituzkeen emaitzak eman ote dituen aztertzea eta horretaz gogoeta egitea, egin beharrekoa ezbaierik gabe. Orain lehen baino gehiago egiten da euskaraz, eta lehen egiten ez zen tokietan ere egiten da orain, baina ezagutzaren eta erabileraren arteko jauziaren tamainak erakusten du nahiaren eta ezinaren arteko borroka areagotzen ari dela.’

Jauzi hori gerta ez dadin, nahiaren eta ezinaren arteko borroka hori areagotu ez dadin, euskaltegiko irakasleok eta euskaltegiak berak, ikasleari erabilera-esparruak eskaini behar dizkiogula uste dut. Askotan entzuten diegu ikasleei, eskoletatik kanpo ezinezkoa zaiela euskaraz hitz egitea, ez dutelako, ez norekin, ez non erabili.

Irakasleontzako lan-zama ikaragarria izan gabe, orain arte irakaslearen eta euskaltegiaren boluntarismoaren esku egon baitira, bideak eta moduak aurkitu eta landu beharko genituzke horri konponbideren bat emateko. Beti landu izan dira kanpo ekintzak euskaltegietan, irteerak direla, afariak direla, baina azken urteotan erlaxatu ote garelakoan nago. Eta ez da erlaxatuta egoteko unea, oraintxe eskaini behar diegu laguntza gure ikasleei. Orain egiten ez badugu, beranduegi izan daitekeelako.

*Kultura transmisioa
euskaltegiko
taldeetan*

Kultura transmititzeko, nahiz eta erraza izan ez, kultura zer den argitu beharko genuke edo horretan saiatu, behintzat. Horretarako, HABEren HEOKn (Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua) agertzen den UNESCOren definizioa erabiliko dugu:

Kultura, zentzurik zabalenean, gizarte edo gizarte-talde baten ezaugarriek osatzen dute: ezaugarri espiritualek eta materialek, adimenezkoek eta afektiboek. Bere baitan hartzen ditu, ez soilik arteak eta letrak, baita bizimodua, gizakiaren oinarritzko eskubideak, baloresistemak, ohiturak eta sineskerak ere. Kulturak ematen dio gizakiari bere buruaz gogoetak egiteko gaitasuna. Berak egiten gaitu gizaki, adimendun, kritiko eta etikoki konprometitu. Berari esker bereizten ditugu baloreak eta gauzatzen aukerak. Berari zor dio gizakiak mintzatzea, bere buruaz jabetzea, bukatu gabeko proiektu dela aitortzea, egiten duena epaitzea, esanahi berrien bila ibiltzea etengabe eta bere burua gainditzen duten lanak sortzea.

Definizioa ikaragarri ederra da. Horrela iruditzen zait niri behintzat. Definizioa irakurrita, kultura transmisioa nola bermatu jakitea errazagoa dela begitantzen zait. Baina denok dakigu teoria eta praktika gauza desberdinak direna.

Hizkuntza bat irakasten eta ikasten denean, kultura ere irakasten eta ikasten da. Beraz, euskara irakastean, euskal kultura ere irakasten ari gara,

edo orrela beharko luke izan. Baina horretarako kontziente izan behar dugu. Eta kontzientzia horrek emango digu gaitasuna eskoletan egiten ditugun jarduera didaktikoak eduki kulturaletatik aldendu ez daitezen.

Euskal kultura zer den definitzen ados jartzen ez garen honetan, gauza bat, gutxienez, argi izan beharko genuke: euskarak berezkoa duela euskal kultura eta hizkuntza irakasten dugunean ezin dugula ahaztu barnean izaera eta alde kulturala baduela.

Alabaina, ikasmaterialak eskolaratzen ditugunean, zenbatetan izaten dugu ikuspuntu hori buruan? Nire ustez, Ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia saihestu nahi badugu, ikasleek kultura definizio zabal horren jabe izan behar dute. Joxe Manuel Odriozolari irakurria diot ez dagoela hizkuntzaren ardatzean eraikitzen ez den kulturarik.

Eztabaidagarria gertatzen da gaur egun esaldi hori, baina gustatu zait. Iruditzen zait, euskaltegietan lan egiten dugunok barneratuta izango bagenu, bestelako tratamendua eman geniekeela eduki kulturei, nolabait esateko. Ez dut honekin esan nahi ez dagoenik horrela egiten ez duenik, baina uste dut, oro har, gehiegi baztertzen dugun gaia dela.

Hurrengo puntuan aztertuko badugu ere, ez dut aukera galdu nahi kurrikuluak berak dioen zerbait aipatzeko: euskarak baduela ikuspegi linguistiko kultural berezia. Ez dezagun ahaz.

*Alderdi
soziolinguistikoaren
aplikazioa*

Badakigu Euskal Herriko egoera soziolinguistikoan alde handiak daudela lurralde batetik bestera. 2001. urtean egindako Soziolinguistika inkestak lortutako datuei begiratzea besterik ez dago.

Hurbilen eta ezagunen dudana aipatuko dut hemen. Esan nahi dut, Nafarroa eta Iparraldeko egoerari ez diodala aipamenik egingo. Ez luzatzearren eta datuak ezagutuagatik ez dudalako bertatik bertara egoera bizitzeko aukerarik izan.

EAEko datuei bagagozkie, begien bistakoa da azken hogeitun urteotan euskararen ezagutza handitu egin dela. Horrela gauzak, euskaraz eta gaztelaniaz ondo hitz egiteko gai direnak biztanleen ia herena dira (%32,2), elebidun hartzaileak, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren, euskara ondo ulertzen dutenak %18,2 eta erdaldun elebakarrak, alegia, euskaraz hitz egiten ez dakitenak, biztanleriaren ia erdia (%49,6).

Datuok ikusita itxaropenarentzat lekurik badela pentsa daiteke. Baina txosten berean agertzen den bezala, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldeak erakusten du gauza batek ez duela bestea bermatzen.

Ikerketak sakoneko aldatetak ondorioztatu ditu, hala populazioaren baitan, nola euskaldunen multzoaren baitan. Azken urteotako bilakaera soziolinguistikoaren ezaugarriak lau puntutan laburbiltzen ditu aipatu ikerketak:

- Populazioaren gehiengoak euskararen mesedetan eginiko ekintza positiboaren aldeko apustua egin du.

- Euskal hezkuntza-sistema euskalduntzearen ondorioz, transmisioaren aurrerakada izugarria izan da.
- Familiar transmisioa ia erabatekoa da.
- Erabilera handitzen ari da, baina hamar urte beranduago eta ezagutza handitzen ari dena baino gutxiago.

Zaila suertatzen da horrelako datuak interpretatzea. Baikor dena ezkor bihurtzen da eta ezkor dena baikor bihurtzeko ahalegin asko egin behar-ko ditugula uste dut.

Argi dago gazte elebidun gehiago izatea hezkuntza-sistemaren euskalduntzearen ondorio izan dela. Baina hona hemen datu kezagarria: hiru elebidunetatik batek baino ez du euskaraz mintzatzeko etorririk, trebetasun eta erraztasun handiagoa gaztelaniaz hitz egiteko baino.

Hortaz, gazte horiek eskuratu duten gaitasun linguistikoa sendotzeko eta, azken batean, ez galtzeko, programa bereziak abian jartzea presazkoa da.

Eta horra hor kezka; euskaltegietan ikasleen jaitsieraz hitz egiten dugunean, aipatzen den faktore garrantzitsuenetariko bat beti horixe izaten da: gazteak eskolatik euskaldunduta irteten direla eta euskaltegietara hurbiltzekotan EGA lortzera baino ez direla etortzen.

Interpretazioa sinpleegia nire ikuspuntutik. Ados, hainbat eta hainbat gaztek hizkuntza ezagututa irtengo du eskoletatik, baina nork bermatzen du hiztun horien hizkuntza kalitatea?

Zenbatetan hartzen ditugu kontuan ikerketa eta gomendioak programa bereziak abian jartzeko? Are gehiago, gazte horiei programa bereziak eskaintzeko beharra ikusten dugu? Hausnartzen dugu horren inguruan?

3. Kurrikulua: zer dioen eta nola aplikatzen dugun

Helduen euskalduntzearen oinarritzko kurrikulua (HEOK): horixe dugu gure eguneroko jardunean aritzen lagunduko digun tresna.

Baina, zein helburu du kurrikuluak? Bada, bertan aipatzen zaigunez, bikoitza: batetik, dokumentu batean jasotzea arlo didaktikoan euskaltegiaren eta kasu honetan AEK-ren izaera nahiz pentsaera. Bestetik, –eta azpimarratu nahiko nuke– irakasleari bere formaziorako tresna bat eman nahi izan zaio, eguneroko lanean ikuspegi kritikoa eraiki dezan, hots, euskarri dokumentala.

Kurrikulua hiru ataletan banatuta badago ere, guk lehen zatia aztertuko dugu batik bat. Lehen atal honetan biltzen dira hizkuntzari buruz dugun ikuspegia; soziolinguistikaren eta kultur transmisioaren aldetik zein jarrera eta helbururekin irakasten dugun euskara eta bigarren hizkuntza eskuratzea eskolaren testuinguruan.

HEOK-k argi uzten duenez, hizkuntzaren alderdi soziokulturala da kurrikuluaren oinarrietako bat. Alderdi horrek, hitzak dioen bezala, alderdi soziologikoa eta alderdi kulturala jasotzen ditu. Horrela bada, azter ditzagun:

Aurreko atalean eman diogu gainbegiratu bat Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoari eta hainbat datu ekarri ditugu orrialde hauetara. Argi utzi dugu ezagutza handituagatik ez dela erabilera ziurtatzen eta horixe da kurrikuluak atal horretan jasotzen duena: erabilera bermatu nahi bada, euskaldun osoak behar dira eta horixe da, hain zuzen ere, euskalduntzearen azken helburua.

Inork ez du zalantzan jartzen euskaltegiaren zeregina garrantzizkoa dela hizkuntzaren eskurapenean, baina ez bakarra. Beraz, euskaltegitik kanpoko eguneroko jardunean osatu behar du ikasleak euskaltegiko lana. Baina, zer gertatzen da giro erdaldunetan? Aukera hori oso murrizta denez, euskaltegiaren esku gelditzen dela egoera normal batean inguruari dagokion zeregina. Horrela, ahalegin berezia egin beharko dute/dugu irakasleek eta euskaltegiak, inguruneak ikasleari eskaintzen ez diona eskaintzen: euskara ikasteko eta erabiltzeko aukera.

Horra hor kurrikuluak dioena. Azken batean, hainbat eta hainbat irakasleek buruan dugun kezka eta zalantza.

Badakigu azken helburua euskaldun osoak lortzea dela. Badakigu hori lortzeko euskaltegia ez dela nahiko. Badakigu, halaber, ikasleari erabilera bermatzeko tresnak eskaini behar zaizkiola, eremu erdaldunetan batez ere. Bai, hori guztiori badakigu. Baina ez dugu lortzen. Eta horrek eragiten digu porrot sentiazioa. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) txostenean porrot hau ez dela sentipen hutsa baieztatzen digu:

Hizkuntza bat ikastea neketsua da. Bestalde, euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak ez dira onak: hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen, hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxi erdiesten dute euskara-maila egokia. Horietako askok, gainera, ikasteari utzitakoan, euskaraz bizitzeko dituzten aukeren urritasunagatik, galdu egiten dute ikasitakoa.'

EBPNk horixe dio eta erabilera-datuak argiak dira; beraz, gure porrot sentipena egiazko datuetan oinarritua dago. Baina, euskaltegitako eguneroko jardunean horren kontzientzia argia ez dugula uste dut.

Datuok horren argiak izanda, zerbait egin beharko genukeela argi dago. Baina horretarako, ordea, zeharo aldatu beharko genuke eguneroko jarduna. Orain ezarrita ditugun helburuak lortzen ez baditugu, eta helburu horiek ondo ezarrita daudela uste badugu, bidean egiten dugu estropezu.

Lehen ere esan dugu ezin dugula erantzukizun guztia irakasleonek boluntarismoan utzi, baina ez ote gara erlaxatu? Zein baliabide eskaintzen zaizkio ikasleari euskaltegitik kanpo ikasten duena erabili dezan? Eta euskaltegian bertan?

Bai, azken urteotan hainbat egitasmo jarri dira martxan eta txalotzekoak dira. Baina ez dira nahikoa. Pentsatzen hasia nago egitasmo horien atzean ezkutatzen garela gure eguneroko eskoletan beste baliabide batzuk ez lantzeko.

Normalizazio linguistikoa

Oraindik ere, hizkuntza normalizatua ez den heinean, zenbait eremu arrotz zaizkio euskarari. Bestalde, euskara idatziaren eta ahozkoaren berezitasunak, euskara idatziaren kutsua...

Kurrikuluak jasotzen du ahalegin berezia egin beharko dela irakaskuntzan ahozko erregistro bereziak lantzen eta hizkera artifiziala leuntzen.

Badira beste esparru batzuk euskarak bereganatuak dituenak: etxea, lagunartea, kalea... Esparru horiei esker iritsi da bizirik euskara gaurdaino. Eta hemendik aurrera ere, nahitaezko izango dira. Baina esparru horietan euskara “asmatua” dago eta irakasleak ez du zertan “asmatzen” ibili.

Aipatutakoaren gainean aipamen pare bat besterik ez. Batetik, kurrikuluak diotenak eremu geografiko eta ikasle batzuentzat baino ez duela balio. Badira ikasleak ez dutenak inolako aukerarik hizkuntza erabiltzeko. Horrelakoetan lan gehigarria egin beharko da eguneroko eskoletan ez duten esparru hori beste era batean ordezkatzeko.

Bestetik, irakasleok ez dugu inoiz ahaztu behar normalizatua ez dagoen hizkuntza bat irakasten ari garela, horrek esan nahi duen guztiarekin.

Normalizazioa eta motibazioa

Ematen du, euskara apurka-apurka prestigioa hartzen ari dela. Euskara ikasteak baditu abantailak, beste euskal hiztunekin harreman sendoagoak izateko aukera eta lanerako beharra, besteak beste. Baina oraindik euskal gizartean ez da beharrezko euskara jakitea. Eta euskara maila simbolikoan geratzeko arriskua hortxe dago. Horrek guztiak, eragina du ikasteko motibazioan eta, ondorioz, emaitzetan.

Horren harira, ikasle batek euskaraz egin dezan nahi badugu, ez dugu ahaztu behar geure helburuetariko bat hizkuntza normaltzea dela, ez da aski euskara irakastea. Ikaslea bizi den inguruak berretsi behar dio euskaraz hitz egiteak merezi duela, bere eguneroko bizitzarako baliagarri zaion tresna bilakatzen zaiola, ikasten ari dena baliagarria dela. Eta horretarako, ezagutzaz gain, beste neurri batzuk ere aztertu eta bideratu behar ditugu irakasleok.

Horien artean, integratzeko asmoa duen ikasleari benetako aukerak eskaini behar dizkiogu euskara erabil dezan. Ez da nahikoa eskolan jarduera erreala egitea, gizartean aurki ditzakeen aukeretara hurbildu behar dugu. Horrela lortuko dugu euskaltegia akademia hutsa izatetik euskaltzaleon bilgune izatera igarotzea.

Bestalde, motibazio integratzailerik ez daukaten ikasleei euskara euren hizkuntza ere izan daitekeela erakutsi behar diegu, prestigiodun hizkuntza bizia dela eta ez inposaketa edo titulazio bat lortzeko tresna hutsa.

Azken horrek nahikoa buruko min sorrarazten digu irakasleoi. Hainbaten kezka da gero eta ikasle gehiago hurbiltzen zaizkigula titula-

zieren bat lortzeko asmo eta helburu bakarraz. Benetan zaila suertatzen zaigu horrelakoetan motibazio integratzaileak eskaintzea, eta, azken batean “konbentzitzea”.

Zaila, zaila benetan, baina zergatik ordea? Batzuetan baliabide falta sumatzen dugu gure eguneroko eskoletan. Bai, euskara erabil dezaten bultzatu behar ditugu, kontzientzia hartzeko kanpaina eta ekitaldiak burutu. Baina ez da erraza, batik bat irakasleok maiz bakarrik sentitzen garenean. Arazoak komunak dira, baina konponbideak norberak bilatu behar ditu bere taldeetarako.

Zergatik ez da horretarako gehiago lantzen formazioa adibidez? Bai, irakasten jakin behar dugu, baita ebaluatzen ere, baina emaitzak ez dira guk nahiko genituzkeenak. Zergatik ez jarri komunean zailtasun guztiak eta konponbideak bilatu?

Alderdi kulturala

Egoeraren analisisan ikusi dugu Unescok kulturaren gainean ematen duen definizioa.

Zentzu zabal batean, gure ezaugarrien adierazpena da berau eta bizitzeko era ere adierazten du.

Beraz, kontuan izan beharko genuke euskara irakasten dugunean, euskal kultura ere irakasten ari garela, ez baitago kultura-edukirik gabeko hizkuntzarik.

Aurrekoarekin ez dugu esan nahi erdararen osagai kulturalak baztertu behar ditugunik kurrikulua egin eta aplikatzerakoan. Aitzitik, zertan diren berdin eta zertan desberdin oso kontuan hartu beharko dugu.

Zentzu honetan, ez dugu ahaztu behar euskarak bere ikuspegi linguistiko kultural berezia baduela eta hori aintzat hartzeak kalitatezko hiztunak sortzea bermatuko digu.

4. Hobetze bidean

Argi dago, bada, hainbat zalantza eta kezka baditugula gure eskolak ematen ditugunean.

Askotan, egunerokotasunean murgilduta gaudenean, erlojuek eta egutegiak agintzen dute eta nahikoa izaten dugu eskolak prestatu eta emateaz. Egunerokotasun horretan, kosta egiten zaigu lan honetan aurkeztu eta konpartitu nahi diren hausnarketak ikustea.

Esango nuke sentipena hor dagoela. Baina, epe laburrera ezarrita ditugun helburuekin estaltzen dugu. Ez hori bakarrik, egunerokotasun horrek, maiz, ez digu epe ertain eta luzera ikusten uzten eta, nire ustez, hortxe dago gakoa: ikasle baten ikas-prozesua planifikatzeko gaitasunean, alegia.

Dena den, gakoa non den ikusiagatik, ez da batere erraza planifikazio hori taxuz egitea. Ikasle berri bat hurbiltzen zaigunean bestelako protokolo bati jarraitu beharko geniokeela uste dut. Esan nahi dudana zera da:

mailaketa-proba egiten zaionean, bestelako galdera batzuk ere egin beharko litzaizkioke. Askotan egiten ditugu, pentsatuko du norbaitek. Bai, baina ez dugu modu estandar bat erantzunak jasotzeko eta ikasle horren ikas-prozesu horri etekina ateratzeko.

Beraz, ditugun tresnak hobeto erabili edo gure gustukoak eta erabilgarriak diren berriak sortu, berdin dit; baina ikasle berriek bere ikas-prozesua hastean nahiz irakasleek argi izan beharko lukete zein diren helburuak, zer-nolako asmoekin eta zertarako hurbildu den euskaltegira, bere harreman-sareak zein aukera eskaintzen dion ikasten duena erabiltzeko eta nolako motibazioak eraginda hurbildu zaigun.

Lan honen bigarren atalean, egoeraren analisisian hain zuzen ere, hainbat arlotan zatitu dugu analisi hori. Proposamenak egiteko ere, zatiketa hori erabiliko dut errazagoa suertatuko zaidalakoan.

Motibazioa

Beharrianik sentitzen ez badu, ikasleak nekez izango du hizkuntza ikas-teko eta erabiltzeko beharrik.

Beharrian hori ez dio, gaur egun behintzat, gizarteak eskainiko. Denok dakigu, jakin ere, euskara jakitea ez dela beharrezkoa gure kaleetan, gure egunerokotasunean.

Baina hizkuntzari, eta horretan eragin dezakegu irakasleok, bere funtzio komunikatiboa ematen badiogu eta horretan benetan ahalegintzen bagara, helburutik hurbilago egongo gara.

Ez dezagun ahaz, gurea ez dela erabat normalizatua dagoen hizkuntza. Eta horrek eragin handia duela ikasleengan eta motibazioan. Baina, eguneroko sentimendu, poztasun eta kezka euskaraz adierazteko aukera eta sarea eskaintzen badizkiogu ikasleari motibazioan ere eragingo dugu eta, azken batean, horixe da lortu behar duguna.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaz motibazioak norberarena eta giza taldearena behar duela izan. Euskaltegietako taldeek ematen dute aukera horretarako, aprobetxa dezagun.

Ezagutza

Hiztunak behar ditugu, baina ez hori bakarrik, kalitatezko hiztunak behar ditugu.

Jakina da hizkuntza-kalitatea motibazioaren, ezagutzaren eta erabilera-aren nahikotasun mailak bakarrik ahalbidera dezakeela, nahiz eta guztiz bermatu ez. Ezagutzan aipatu dugu lehen ere, irakasleok ezin dugula edonola irakatsi. Ezin gaitezke paradigma gramatikalak irakastera mugatu edo ez genuke horrela egin beharko.

Gurean, helburu nagusia komunikatzen irakasteak beharko luke. Egiten al dugu? Lortzen al dugu?

Ebaluazioetan paradigma gramatikalak ez ezik, baliabide komunikati-
boak ere azter ditzagun.

Guri dagokigu, halaber, emaitzei buruzko gogoeta sakona egitea.
Kalitate-irizpideak finkatu eta adostu behar ditugu.

Erabilera

Hona hemen EBPNn ezarritako bigarren helburu estrategikoa:

Datozen 10 urteotako erronkarik nagusia, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, enpresa-mundurako, aisiarako, kirolerako eta komunikabideetako produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarterako, gizarte bizitzarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal herritar jotzeko. Horretarako, euskarazko zerbitzuen “eskaintza” eskolatik harago eramán eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldu behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, bai herri-agintek bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun, hezkuntza, kirol, aisia eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebrietan eskaintzea.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 1999an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Hamar urterako irizpide eta lehentasunak zehaztu ziren. Hamar urte laster beteko dira.

Esango nuke EBPNk markatutako erronkak ez direla bete, baina hori hamar urteok betetzean aztertuko dute/dugu. Baina, helburua hona ekarri badut euskalgintzan dihardugunontzat ezinbestekoa iruditzen zaidalako da. Ezinbestekoa etengabe buruan izatea, ezinbestekoa eskolak prestatzean ezartzeko helburuak buruan izatea.

Hainbatetan aipatu dugu ezagupenetik erabilerara jauzia egin behar dute-
la ikasleek. Baina bakarrik ezin dute. Are gehiago, eremu geografikoak kontuan izanda, hainbat eta hainbat tokitan ezinezkoa zaie euskaltegieta-
tik kanpo euskaraz hitz bakarra egitea edota entzutea ere.

Baina nola egiten da jauzi hori? Zein da irakaslearen egitekoa horretan? Irakaslearena beste inorena ez da? Nork eskaini eta sortu behar ditu sare-
ak ikasleek aukera hori izan dezaten?

Azken urteotan makina bat proiektu jarri dira abian. Berbalagun, Mintzalagun eta horrelakoak hainbat herritan topa ditzakegu. Baina ez da nahikoa. Proiektu horiek baliabide oso garrantzitsuak dira ikasleentzat baina gure azken helburua hitzun osoak lortzea bada beste zerbait ere behar dute gure ikasleek.

Sareak lortzeari nahitaezkoa deritzot. Hasi taldean, jarraitu euskaltegian, inguru hurbilean eragin eta ahalik eta sare handiena eskaini behar zaio

ikasleari. Zaila da, dudarik ez, baina ez lortezina. Lan handiagoa ematen du eta irakaslea ezin daiteke bakarrik utz. Baina denok jarri behar dugu zerbait.

Atal honetan gazte euskaldun berriei arreta berezia eskaini beharko genieke. Bai; ezagutza badakarte, baina erabilerarik ez. Ezin dugu pentsatu arlo hori irabazita daukagula D ereduan ikasitakoak direlako. Gazte horiek hizkuntzaren egiazko balio funtzionalaz ohartu behar dute.

*Kultura transmisioa
euskaltegiko
taldeetan*

Bidea oso argi markatzen du kurrrikuluak eta horri ekin behar diogu.

Lehenengo eta behin, estereotipoak eta topikoak alde batera utzi eta lekuan lekuko errealitatera jo. Inoiz ez baztertu ikaslearen jatorrizko kultura. Eduki kulturalak ikas-materialetan bertan eskaini eta jarduera didaktikoak elementu kulturalaz jantzi.

Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak 2003ko urrian aurkeztu zuen Euskara Kulturaren Euskal Planean txostena. Bertan honakoa irakur dezakegu:

Euskara da euskal kulturaren oinarria. Euskara da Euskal Herriko kultura sortzeko zein komunikatzeko erabili den eta erabiltzen den tresnetako bat, besteak gaztelania eta frantsesa dira. Nolanahi ere, esan behar euskal kultura euskaraz sortzen den kultura dela eta berau dela Euskal herriko berezko kultura. Hortaz, kultura sortzeko eta komunikatzeko hizkuntza bat baino gehiago bada ere, eta denen artean sortzen badute Euskal Herriko kultura, berezkoa eta berezia Euskal Kultura da. Euskal kultura eta euskara hain daude elkarloturik, euskal kulturaren geroa euskararen geroaren pentsutan dagoela esan daitekeela, eta bai kontrakoa ere; euskararentzat etorkizunerako ezinbestekoa baita euskarazko kulturgintzak irau eta indartzea.

Txostenean oso argi adierazten da zein den etorkizuna. Guri dagokigunez, ikasleen integrazio sozio-kulturala bideratu beharko genuke, edo behintzat, horretan saiatu. Konplexurik gabe.

Askotan gertatzen zaigu ikasleek klasetik kanpo ez dutela ekintzarik egin nahi denbora galtze-sentsazioa dutelako. Geure lana da beste modu batean aurkeztea gauzak sentsazio hori izan ez dezaten.

Euskararekiko atxikimendua sendotu behar dugu eta horretarako baliabideak eskaini ikasleei. Jakina, irakasleok baliabide horiek lortzeko aukerak ere izan behar ditugu, eta beti ez da hain erraza izaten.

Ziur aski, asko eta asko ez dira ados egongo hemen azaldutako kezka eta zalantzekin. Beste asko, batzuekin bai, beste batzuekin ez hainbeste. Baina lan honetan islatu nahi izan dudana sentsazioa duten hainbat irakasle dauden susmoa eta itxaropena ere badut. Batetik susmoa, beste irakasle batzuekin hitz egitean antzematen delako halako “zerbait ez gara ondo egiten ari” bat; bestetik itxaropena, arazoa zein den edo zein izan daitekeen badakigulako eta zerbait egitearen beharra sentitzen dugulako.

Hemen ez da irtenbide magikorik eskaintzen, konturatuko zineten. Agian egon badaude, baina aurkitzeko oraindik ere hausnarketa ugari, ehunka bilera, aparteko lan-ordu eta egonarri handia beharko ditugu.

Baina hori guztiori oraindik badaukagulakoan nago. Edo horixe da, behintzat, zerbait aldatzekotan geratzen zaigun esperantza. Hala izan bedi.

Bibliografia

Amonarriz, K. 2004. Hizkuntza kalitatea burujabetza linguistikoa da.

Euskararen Aholku Batzordea 1999. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.

Eusko Jaurlaritza Kultura Saila 2003. Euskara Kulturaren Euskal Planean.

Garzia, Joxerra 2003. Motiezaguerabilpenaren penaz in Hik Hasi.

HABE 1999. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua. Donostia.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hizkuntza Politika Aurrera begira 2005-2009.

Odriozola, Joxe Manuel 2007. Hizkuntzak berezkoa du identitea. Iritzi-muinetik. Erabili.com.

Sánchez Carrión J. M. “Txepetx” 1991. Un futuro para nuestro pasado.